

PENTSIO-FONDO PERTSONALAK

“KUTXABANK MONETARIO, PENTSIO-FONDOA”

PENTSIO-FONDO PERTSONALAREN

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

(2014.10ean eguneratua DGSFP ereduaren arabera)

AURKIBIDEA

I. TITULUA - ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Izena
2. artikulua. Fondoaren izaera eta xedea
3. artikulua. Egoitza
4. artikulua. Fondoaren iraupena eta eragiketen hasiera
5. artikulua. Jardun-eremua eta Fondo modalitatea

II. TITULUA - KUDEAKETA-, GORDAILU- ETA KONTROL-ORGANOAK

6. artikulua. Erakundeak

1. KAPITULUA - KONTROL-BATZORDEA

7. artikulua. Kontrol Batzordearen osaketa
8. artikulua. Fondoaren Kontrol Batzordearen funtzionamendua
9. artikulua. Azpibatzerdeak
10. artikulua. Kontrol Batzordearen funtzioak
11. artikulua. Fondoaren Kontrol Batzordearen funtzionamendu-gastuak

2. KAPITULUA - ERAKUNDE KUDEATZAILEA

12. artikulua. Erakunde Kudeatzailea
13. artikulua. Erakunde Kudeatzailearen funtzioak

3. KAPITULUA - ERAKUNDE GORDAILUZAINA

14. artikulua. Erakunde Gordailuzaina
15. artikulua. Erakunde Gordailuzainaren funtzioak

4. KAPITULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEAREN ETA GORDAILUZAINAREN ORDAINSARIAK

16. artikulua. Erakunde Kudeatzailearen eta Gordailuzainaren ordainsariak

5. KAPITULUA - ERAKUNDE KUDEATZAILEA ETA GORDAILUZAINA ORDEZTEA

17. artikulua. Erakunde Kudeatzailea edo Gordailuzaina ordezteak, eurek eskatuta
18. artikulua. Erakunde Kudeatzailea edo Gordailuzaina ordezteak, Fondoaren Kontrol Batzordearen erabakiz
19. artikulua. Erakunde Kudeatzaileak edo Gordailuzainak beren eginkizunei uko egitea, aldebakarreko erabakiz
20. artikulua. Erakunde Kudeatzailea edo Gordailuzaina desegitea, konkurtso-prozedura edo Erregistrotik kentzea
21. artikulua. Arau bateratuak

III. TITULUA - FONDOAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-ERREGIMENA

- 22. artikulua. Pentsio-fondoaren inbertsio-politika
- 23. artikulua. Finantza- eta aktuario-sistema
- 24. artikulua. Eragiketak egiteko baldintza orokorrak
- 25. artikulua. Hirugarrenetikiko betebeharrak
- 26. artikulua. Fondoaren ondare-balioespena
- 27. artikulua. Emaitzak egoztea
- 28. artikulua. Urteko kontuak eta auditoria

IV. TITULUA - PLANEN INTEGRAZIOA, BAZTERKETA ETA LIKIDAZIOA

- 29. artikulua. Planen integrazioa
- 30. artikulua. Planen egoera-kontuak erabakitzea
- 31. artikulua. Planaren egoera-kontuaren mobilizazioa
- 32. artikulua. Pentsio-planen likidazioa

V. TITULUA - FONDOA ALDATZEA ETA DESEGITEA

- 33. artikulua. Funtzionamendu-arauak aldatzea
- 34. artikulua. Fondoa desegitea eta likidatzea

VI. TITULUA – AZKEN XEDAPENAK

- 35. artikulua. Jurisdikzioa
- 36. artikulua. Hartutako konpromisoak

**“KUTXABANK MONETARIO, PENTSIÓ-FONDOA”
FONDOAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUAK**

I. TITULUA. ARAU OROKORRAK

1. ARTIKULUA. IZENA

KUTXABANK MONETARIO, PENTSIÓ-FONDOA izenez, honako arau hauek zuzenduko duten Pentsio Fondoa sortzen da:

- Pentsio Plan eta Fondoaren Legearen Testu Bategina (Legea, aurrerantzean), azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, eta haren ondorengo aldaketak.
- Pentsio Plan eta Fondoaren Araudia (Araudia, aurrerantzean), otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onartua, eta haren ondorengo aldaketak.
- Eta aurrekoei eragiten dieten arau osagarri eta baterakorrak, etorkizunean horiek aldatu edo garatu ditzaketen arauak barne.

2. ARTIKULUA. FONDOAREN IZAERA ETA XEDEA

- 1) Fondo hau bere barnean sortutako Pentsio Plana edo Planak betetzeko espresuki sortu den ondare bat da.
- 2) Nortasun juridikorik gabeko ondarea denez, Funtzionamendu Arau hauen arabera administratu eta ordezkatu da.
- 3) Fondo honi atxikitako baliabideen titulartasuna bere barnean sortutako Pentsio Planaren edo Planen partaideei eta onuradunei dagokie.

3. ARTIKULUA. EGOITZA

Lege-ondorioetarako, Fondoaren egoitza Erakunde Kudeatzailearen egoitza bera izango da.

4. ARTIKULUA. FONDOAREN IRAUPENA ETA ERAGIKETEN HASIERA

- 1) Fondoaren iraupena mugagabea bada ere, desegin eta likidatu ahal izango da, legez hala dagokionean edo Arau hauetan ezarritako arrazoiengatik.
- 2) Fondoaren eragiketak hasteko, ezinbestekoa izango da Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Pentsio Fondoaren Erregistro Berezian erregistratzea eta fondoan Pentsio Plan bat integratzea.

5. ARTIKULUA. JARDUN-EREMUA ETA FONDO MODALITATEA

- 1) Jardun-eremua Espainiako Estatu osora hedatuko da, bai pentsio-planak erakartzeari bai haien instrumentazio, garapen eta egikaritzeari dagokienez.

- 2) **KUTXABANK MONETARIO** Pentsio Fondoa Fondo Pertsonal bat da, eta Sistema Indibidualeko eta/edo Elkartuko pentsio-planak atxikiko zaizkio soil-soilik.
- 3) **KUTXABANK MONETARIO** Pentsio Fondoa irekia edo itxia izan daiteke. Irekia bada, horren berri eman beharko zaio Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari, 10 eguneko epean, dagokion erabakia hartzen den egunetik kontatzen hasita.

II. TITULUA. KUDEAKETA-, GORDAILU- ETA KONTROL-ORGANOAK

6. ARTIKULUA. ERAKUNDEAK

Fondoaren administrazioan eta kontrolean, eta haren barnean dauden finantza-balore eta -aktiboen gordailuan, honako erakunde hauek parte hartuko dute nahitaez:

- a) Fondoaren Kontrol Batzordea: Fondoaren funtzionamendua gainbegiratzen eta kontrolatzen duen organo nagusia da. Fondoaren barnean sistema indibidualeko plan bat edo entitate berak bultzatutako plan batzuk daudenean, ez da Kontrol Batzorderik beharko, eta planaren edo planen sustatzaileak bere gain hartuko ditu indarrean dagoen araudiak Kontrol Batzordeari ematen dizkion eginkizunak eta erantzukizunak. Kasu horretan, funtzionamendu-arau hauek Fondoaren Kontrol Batzordeari egozten dizkion eginkizun guztiak planaren edo planen Sustatzaileak gauzatuko ditu. Haren funtzioak Legeak eta Araudiak ezarritakoak izango dira.
- b) Erakunde Kudeatzailea: Pentsio Fondoaren administrazioaz arduratzen den erakundea da, eta Kontrol Batzordearen gainbegiradapean dihardu. Erakunde Kudeatzailearen eginkizunak Funtzionamendu Arau hauek eta indarrean dagoen araudiak ezarritakoak izango dira; gainera, hala dagokionean, kontuan hartuko dira ere Fondoaren Kontrol Batzordeak espresuki eskuordetzaz utzitakoak, legez ezarritako muga barnean.
- c) Erakunde Gordailuzaina: Pentsio Fondoaren barnean dauden balore higigarriak eta gainerako finantza-aktiboak zaintzeaz eta gordailutzeaz eta araudi erregulatzaileak ezarritako gainerako funtzioez arduratzen den kreditu-erakundea da. Erakunde Gordailuzaina bakarra izango da une bakoitzean Fondoarentzat, balore- edo eskudiru-gordailuak beste erakunde batzuekin kontratatzeke aukera baztertu gabe.

1. KAPITULUA. KONTROL-BATZORDEA

7. ARTIKULUA. KONTROL-BATZORDEAREN OSAKETA

- 1) Fondoaren barnean sistema indibidualeko plan bat edo entitate berak bultzatutako plan batzuk daudenean, ez da Kontrol Batzorderik beharko, eta kasu horretan, planaren edo planen sustatzaileak bere gain hartuko ditu indarrean dagoen araudiak Kontrol Batzordeari ematen dizkion eginkizunak eta erantzukizunak.
- 2) Pentsio Fondoak sistema elkartuko Pentsio Plan bakar bat duenean, Planaren Kontrol Batzordeak bere gain hartuko ditu Fondoaren Kontrol Batzordearen eginkizunak, eta kontuan hartuko ditu, halaber, Planaren Kontrol Batzorde gisa dagozkion arauak.

- 3) Fondoak hainbat sustatzailerren sistema indibidualeko planak eta/edo sistema elkartuko hainbat plan dituenen, plan bakoitzaren ordezkariak osatuko dute Fondoaren Kontrol Batzordea.

Sistema elkartuko planen kasuan, planaren Kontrol Batzordeak izendatuko ditu ordezkari horiek; sistema indibidualeko planen kasuan, erakunde sustatzaileak. Hori horrela, fondoari atxikitako planen artean, erakunde berak sustatutako sistema indibidualeko bi plan edo gehiago daudenean, plan horien ordezkariak bateratua izendatu ahal izango du erakunde horrek Fondoaren Kontrol Batzordearako.

Sistema Elkartuko Planaren lehenengo Kontrol Batzordea eratu bitartean, Planaren sustatzaileari dagokio ordezkariak izendatzea Fondoaren Kontrol Batzordean, edo, hala dagokionean, batzorde horren funtzioak bere gain hartzea atxikitako Plan bakarria izanez gero.

Fondoaren Kontrol Batzordeko kideen agintaldia lau urtekoa izango da, edo legeak une bakoitzean ezartzen duen iraupenekoak, eta berraukeratu edo ordezkatu ahal izango dituzte.

Kideren bat bere agintaldian hiltzen denean, ezgai gelditzen denean, kargua uzten duenean edo ordezkari batzordean, Planaren Kontrol Batzordeak (edo Sustatzaileak) beste ordezkari bat izendatuko du, eta agintaldia amaitu arte iraungo du kargu horretan.

Kontrol Batzordeko kargua doakoa izango da, funtzionamendu-gastuei dagokienez Arau hauetan ezarritakoari kalterik eragin gabe.

Plan elkartuen kasuan, Planaren Kontrol Batzordeko kide izateari uzten zaionean, Fondoaren Kontrol Batzordeko kide izateari uzten zaio automatikoki.

8. ARTIKULUA. FONDOAREN KONTROL-BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA

- 1) Fondoaren Kontrol Batzordeak, bere batzordekideen artean, batzordeburu eta idazkari bat aukeratu ditu, honako funtzio hauek izango dituztenak:

Batzordeburuak bileretarako deialdiak egingo ditu, bileretako buru izango da eta eztabaidak gidatuko ditu; hartara, erabakiak betearaziko ditu. Azken eskumen hori eskuordetu ahal izango du, oro har edo kasu bereziren batean; betiere, Kontrol Batzordeak erabakitakoarekin bat etorrira.

Batzordeburua egon ezean, Kontrol Batzordean dagoen kiderik helduenak gidatuko ditu bilerak.

Idazkariak, berriz, Kontrol Batzordearen bileretako aktak idatziko ditu; egiaztagiria aintzat hartuko ditu; batzordeburuaren onespenearekin, Kontrol Batzordearen erabakiak jakinaraziko ditu; eta eskaera, erreklamazio eta kontu-azalpen guztiak jasoko, baita honako Funtzionamendu Arau hauen kariatara, Batzordeari aurkeztu beharreko bestelako eskaera, jakinerazpen eta informazioak ere.

Idazkaria egon ezean, Kontrol Batzordeko kiderik gazteenak beteko ditu haren funtzioak.

- 2) Fondoaren Kontrol Batzordearen bileretarako deialdia batzordeburuak egingo du, beharrezkoa iruditzen zaionean, edo Batzordeko zein Erakunde Kudeatzaile edo Gordailuzaineko kideen gutxienez bostenek hala eskatzen dutenean. Nolanahi ere den, urtean behin gutxienez, zehazki ekitaldi bakoitzeko lehenengo lauhilekoan, bilera bat egin beharko litzateke, urteko kontuak eta Erakunde Kudeatzailearen jarduna onartzeko eta indarrean dagoen araudiak eskatutako bestelako kontuei edo Fondoarentzat interesgarriak diren eta aztergaien zerrendan txertatuta daudenei buruz erabakitzeko.

Batzordeburua egon ezean edo hark ezingo balu, Kontrol Batzordeko idazkariak egingo du deialdia, eta bere ekimenez soil-soilik deitu ahal izango du bilerara, baldin eta horretarako arrazoi larriak badaude.

Deialdian, tokia, eguna eta ordua zehaztu beharko dira. Bertan, aztergaien zerrenda egongo da jasota, eta gutxienez 7 egun lehenago jakinarazi beharko da gutun, telegrama edo posta elektronikoko bidez, jaso izana egiaztatzeko moduan, salbuespen bakarrarekin: bilera oso presakoa izatea; kasu horretan, deialdia hogeita lau ordu lehenago egin beharko da.

Aztergaien zerrenda batzordeburuak ezarriko du, bai bere ekimenez, bai deialdia egitea legez eskatu dutenen ekimenez. Bilera bakoitzeko aztergaien zerrenda aldatu ahal izango da, baldin eta batzordekide guztiak bertan badaude, edo behar bezala ordezkaturik, eta aldatzeko erabakia aho batez hartzen badute.

- 3) Kontrol Batzordeko bileretan Erakunde Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren ordezkariak parte hartu ahal izango dute, baldin eta bilera eurek eskatuta egiten bada, edo parte hartzea eskatu eta han dauden kide gehienek onartzen badute. Fondoaren Kontrol Batzordeak, era berean, Erakunde Kudeatzailearen eta Gordailuzainaren ordezkariak gonbidatu ahal izango ditu bileretara, baldin eta egokia iruditzen bazaio.
- 4) Kontrol Batzordea baliozki eratuko da, deialdia behar bezala egin ostean, kide gehienak, bertan izanda edo ordezkaturik, azaltzen badira.

Ordezkaritza beste batzordekide bati eskuordetzeko modua izango da, idatziz, saio bakoitzerako.

- 5) Alabaina, Batzorderako deia egin dela eta zeinahi gai lantzeko baliozki eratuta dagoela ulertuko da, kide guztiak bertan badaude eta guztiak aho batez onartzen badute bilera egitea.
- 6) Bertan daudenen eta ordezkaturik gehienago soilen bidez hartuko dira erabakiak; betiere, hurrengo paragrafoetan aurreikusitakoa kontuan izanda. Gehienago horrek kualifikatua izan beharko du honako Funtzionamendu Arau hauetan espresuki aurreikusitako kasuetan.

Ondorio horietarako, fondoak hainbat pentsio-plan baditu, plan bakoitzak izendatutako ordezkariaren edo ordezkarien botoa haztatuko da, euren kopuruaren eta planak fondoan duen egoera-kontuaren arabera.

Esandakoarekin bat etorrita, bileraren aurreko hilabetearen itxieran Planaren egoera-kontuak adierazten duen balioa zati Plan horrek Batzordean duen ordezkari kopurua eginda lortutako emaitzarekin haztatuko da kide bakoitzaren botoa. Zatiketa horren emaitza, aldi berean, zati Fondoan integratutako plan guztien egoera-kontuen batura egin beharko da, eta horren emaitza izango da batzordekide bakoitzak ordezkaturako interes ekonomikoaren ehuneko. Fondoaren urteko kontuak onartzearen ondorio berezietarako, plan bakoitzaren interes ekonomikoa zenbatzeko erreferentzia-data dagokion ekitaldiaren itxiera izango da.

Hala badagokio, sustatzaile beraren sistema indibidualeko plan guztien egoera-kontua haztatuko da, baldin eta sustatzaileak bere planen ordezkari batzordea bateratua izendatu badu.

- 7) Saio bakoitzeko akta idatziko da, parte hartu duten kide guztiek onartu beharko dutena. Akta horretan idazkariaren sinadura eta batzordeburuaren onespena jasoko dira. Idazkariak aktaren kopia bidaliko dio Erakunde Kudeatzaileari. Kontrol Batzordeak zaindu egin beharko ditu akta horiek; dena den, aktak beti egongo dira Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiaren eskura.
- 8) Kontrol Batzordeko kideak, indibidualki zein taldean, derrigortuta daude Pentsio Fondoari buruzko informazioaren bitartez ezagutu ditzaketen datu indibidual zein taldekako datu guztien gaineko erabateko isilpekotasuna gordetzera.
- 9) Kontrol Batzordeko kideen agintaldia doakoa izango da.

9. ARTIKULUA. AZPIBATZORDEAK

Fondoari atxikitako Pentsio Planetako heterogeneotasun-arrazoiak eta fondoaren dimentsio-arrazoiak direla tarteko, Kontrol Batzordean Azpibatzerdeak eratzeko erabakia har liteke. Azpibatzerde horiek planen arlo homogeneoen arabera edo inbertsio modalitateen arabera jardungo dute, eta baita eskumen espezifikokoak edo beste irizpide batzuk egotzi zaizkielako ere.

Azpibatzerdeetako kideek, ezinbestean, Kontrol Batzordeko kideak izan beharko dute.

10. ARTIKULUA. KONTROL-BATZORDEAREN FUNTZIOAK

- 1) Hauek dira Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordearen funtzioak:
 - a) Atxikitako Planak betetzen ote diren gainbegiratzea.
 - b) Funtzionamendu-arauak, fondoaren beraren arauak eta planenak betetzen ote diren kontrolatzea.
 - c) Indarrean dagoen araudiak hala eskatuta, beharrezkoak diren adituak izendatzea, Pentsio Plan bakoitzaren barnean aurreikusitako ahalmenei kalterik eragin gabe.
 - d) Fondoaren ordezkariatzea. Funtzio hori, baina, Erakunde Kudeatzaileari eskuordetzeko modua izango da.

- e) Ekitaldi ekonomiko bakoitzean Erakunde Kudeatzailearen jarduna aztertzea eta onartzea, eta Fondoaren urteko kontuak onartzea, hala badagokio, Erakunde Kudeatzaileari une bakoitzean indarrean dagoen araudian aurreikusitako erantzukizuna eskatuta.
 - f) Pentsio Plan eta Fondoaren Legean zein Araudian aurreikusitako baldintzetan, Erakunde Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren ordezkapena sustatzea.
 - g) Fondoaren interesaren aurkakoak diren ekintzak eta erabakiak etetea, haien izaeratik eratorritako mugekin eta baldintzetan.
 - h) Fondoan Pentsio Plan berriak integratzea onartzea. Funtzio hori kide batzuei edo Erakunde Kudeatzaileari eskuordetzeko modua izango du. Fondoan integratu nahi duen lehen planari hala egitea onartzea ala ez Erakunde Kudeatzaileak erabakiko du.
 - i) Erakunde Kudeatzailearen partaidetzarekin, Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioak biltzen dituen adierazpena osatzea.
 - j) Partaide eta onuradunen onura bereziko, fondoan integratutako baloreei atxikitako eskubideak egikaritzea. Horiek Erakunde Kudeatzaileak egikaritzuz gero, Kontrol Batzordearen argibideei jarraitu beharko die. Batzar Nagusietako partaidetza- eta boto-eskubideei dagokienez, horiek ere egikaritu beharko dira fondoan integratuta dauden baloreek izaera egonkorra badute eta kopuruz asko badira, non eta eskubide horiek ez egikaritzea justifikatzen duten arrazoiak ez dauden; hala bada, Pentsio Fondoaren dagokion urteko kudeaketa-txostenean horren berri eman beharko da.
 - k) Legeak, Araudiak, horiek garatu eta osatzen dituzten xedapenek eta Funtzionamendu Arau hauek eskumena emandako gainerako gai guztietan proposamenak egin, eta hala badagokio, erabakitzea.
- 2) Nolanahi ere den, Kontrol Batzordearen funtzioak, 1) ataleko c), e), f), g), i) eta k) paragrafoetan zenbakitutakoak, ez dira inori eskuordetzekoak azpibatzerdeetan; hark bere kideetako batzuei hirugarrenen aurrean Fondoaren ordezkartzan jarduteko emandako aginteei kalterik eragin gabe.
- 3) Fondoaren Kontrol Batzordeak bere funtzioak egikaritzeko beharrezko informazio guztia eskatu ahal izango die Erakunde Kudeatzaileari eta Gordailuzainari.

11. ARTIKULUA. FONDOAREN KONTROL-BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDU-GASTUAK

Fondoaren bizkar joango dira, hain zuzen, Fondoaren Kontrol Batzordearen edo azpibatzerdeen bilerek edo jardunek sortutako eta komunak diren gastu guztiak. Gastu horiek Pentsio Plan bakoitzari egotziko zaizkio, Pentsio Fondoan dagokion zatiarekiko proportzioan.

Fondoaren Kontrol Batzordeko kideen gastuak, indibidualizatu daitezkeenak; hala nola Fondoaren Kontrol Batzordearen saioetara joategatik sortutako ostatu- eta garraio-gastuak,

Plan bakoitzaren egoera-kontuaren bizkar joango dira. Dena den, Erakunde Sustatzaileek oso-osorik edo partzialki euren bizkar onartzea hitzar liteke.

Nolanahi ere den, egoera-kontu bakoitzaren arabera sistema indibidualeko planei dagozkien funtzionamendu-gastuen zati proportzionala horien Erakunde Sustatzaileen bizkar geratuko da.

Merkataritza Erregistroan izena eman edo inskribatzeko gastuak, berriz, aldaketa eragin duten planei egotziko zaizkie, edo hala badagokio, plan guztiei.

2. KAPITULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEA

12. ARTIKULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEA

- 1) Fondoa administratzeko ahalmena Erakunde Kudeatzaileak dauka; betiere, Erakunde Gordailuzain baten laguntzarekin eta Fondoaren Kontrol Batzordearen gainbegiradapean, edo horrelakorik izan ezean, atxikitako planaren edo planen Sustatzailearenean.
- 2) Aipatutako Erakunde Kudeatzaileak Pentsio Fondoaren ordezkari onar lezake, Kontrol Batzordeak berari eskuordetuz gero.
- 3) Fondoaren Kontrol Batzordeak noiznahi baliogabetu ahal izango ditu Erakunde Kudeatzaileari eskuordetutako ahalmenak.

13. ARTIKULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEAREN FUNTZIOAK

- 1) Erakunde Kudeatzaileak honako funtzio hauek izango ditu:
 - a) Fondoa eratzeko dagokion eskritura publikoa emateko esku hartzea, eta hala dagokionean, baita berori aldatzeko edo likidatzeko ematekoetan ere. Hala badagokio, dokumentu horiek osatzearekin lotutako bestelako zeregin batzuk ere egin ahal izango ditu, edo horietan lagundu.
 - b) Pentsio Fondoaren kontabilitate-lana egunean eramatea, eta indarrean dagoen araudiak xedatutako moduan, urteko kontuak azaltzea.
 - c) Egoera-kontuen saldoak eta Pentsio Plan integratu bakoitzetik eratorritako eskubide eta betebeharrak zehaztea. Kontuen arteko traspasoetarako eta zerikusia duten eskubideetarako dagozkion zuzemenak igorriko ditu.
 - d) Fondoan integratutako Pentsio Planetan parte hartzen dela ziurtatzeko egiaztagiriak ematea, partaideek hala eskatuz gero. Urtero, partaide bakoitzak egin eta hari egotzitako ekarpenei buruzko egiaztagiria bidaliko da, eta baita bere eskubide bateratuen balioari buruzkoa ere, ekitaldiaren amaieran; eta hori guztia Araudian eta gainerako arau aplikagarrietan aurreikusitako informazio-betebehar guztiak betetzeari kalterik eragin gabe. Planaren ohiko garapenerako beharrezkoak diren zerbitzu aktuarialak gauzatzeko aktuario batek esku hartzen duen pentsio-planetan, eskubide bateratuen egiaztagiri hori aktuario horrek egindako kalkuluen arabera egin beharko da.

- e) Beste Pentsio Fondo batera mugitu daitekeen egoera-kontu baten balioaren zehazpena egitea, dagokion Planak hala eskatzen duenean.
 - f) Pentsio Fondoaren Erakunde Gordailuaren kontrola eramatea, hark betebeharrak zorrotz betetzen dituela jakiteko. Salbuespena izango da Erakunde Kudeatzailearen kontrol-funtzioa, indarrean dagoen araudian aurreikusitako erantzukizun-printzipioaren arabera. Kontrol-jarduera hau egikaritzean, Erakunde Kudeatzailea derrigortuta egongo da jardueran hautemandako zeinahi irregulartasun garrantzitsu edo araudi-urratzeren berri berehala Erakunde Gordailuzainari ematera, baldin eta partaide edo/eta onuradunentzat kalte nabarmena ekar badezake; eta jakinarazi eta hilabeteko epean Erakunde Gordailuzainak egoera konpontzeko beharrezko neurriak hartu ezean, horren berri eman beharko dio Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari.
 - g) Kudeatutako pentsio-fondoaren inbertsio-politikaren kontrola eramatea, indarrean dagoen araudian deskribatutako baldintzetan, eta batik bat, Araudiaren 81 bis artikuluan xedatutako baldintzetan.
 - h) Kudeatzeko eskatu zaion pentsio-plan eta -fondoaren partaide eta onuradunei buruzko dokumentazioaren zaintza arduratzea.
 - i) Une bakoitzean indarrean dagoen legediak gaiari buruz xedatzen dituen gainerakoak.
- 2) Honako hauek izango dira, bestalde, aipatutako Erakunde Kudeatzaileen funtzioak, Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeak espresuki xedatutako baldintzetan eta Batzordeak egoki jotako mugekin:
- a) Pentsio-fondoak gauzatu beharreko inbertsioak aukeratzea, berorren funtzionamendu-arauekin eta gaiari buruz aplikagarriak diren administrazio-aginduekin bat etorrira.
 - b) Pentsio-fondoaren aktiboen salerosketa agintzea.
 - d) Fondoa integratzen duten tituluetatik eta gainerako ondasunetatik eratorritako eskubideak egikaritzea, Fondoaren Kontrol Batzordeak hala eskuordetuz gero.
 - d) Egoera-kontuak beste fondo batzuetara traspasatzeko baimena ematea.
- 3) Erakunde Kudeatzaileak indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion funtzioak eskuordetu ahal izango ditu (ez, ordea, Erakunde Gordailuaren zaintza-funtzioa), aldez aurretik Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeari jakinarazita; baldin eta eskuordetze hori eskuordetutako funtzioak egikaritzeko behar beste baliabide eta gaitasun baduten erakundeetan gertatzen bada.

Funtzioak eskuordetzeak ez dio inola ere eragingo Erakunde Kudeatzaileak partaide eta onuradunei begira duen erantzukizunari.

Eskuordetzea ezingo da egin pentsio-fondoaren Erakunde Gordailuzainean, eta ezta Erakunde Sustatzailean ere.

Eskuordetze horrek, hain zuzen, Araudiaren 85 bis artikuluan xedatutako jokaera-arauak bete beharko ditu.

Gainera, funtzioak eskuordetu zaizkien hirugarrenek ezin dute eurei eskuordetutako funtziorik azpieskuordetu, non eta Erakunde Kudeatzaileak, aldezturik Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeari jakinarazita, espresuki horretarako baimena ematen ez duen.

Erakunde Kudeatzaileak eskuordetutako erakundeen gaineko kontrol-funtzioa egikaritzeko beharrezko kontrol-mekanismo eta -prozedura guztiak ezarri beharko ditu. Atal honetan xedatutako kontrol-funtzioa ezingo zaie hirugarren erakundeei eskuordetu.

3. KAPITULUA. ERAKUNDE GORDAILUZAINA

14. ARTIKULUA. ERAKUNDE GORDAILUZAINA

Fondoan integratutako balore higigarrien eta gainerako aktiboen zaintza- eta gordailutze-lana Erakunde Gordailuzainari dagokio.

Pentsio Fondoak Erakunde Gordailuzain bakarra izango du, beste erakunde batzuekin balore-edo eskudiru-gordailuak kontratatzeari kalterik eragin gabe. Pentsio Fondoaren Erakunde Gordailuzaina da Pentsio Fondoaren baloreen edo eskudiruaren zaintzaren arduraduna, eta erantzukizun horretan ez du eraginik izango horien kudeaketa-, administrazio- edo gordailutze-lana hirugarren bati uzteak.

15. ARTIKULUA. ERAKUNDE GORDAILUZAINAREN FUNTZIOAK

1. Erakunde Gordailuzainak honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Pentsio-fondoa eratzeko, eta hala badagokio, aldatzeko eta likidatzeko eskriturak ematean esku hartzea.
- b) Pentsio-planaren egoera-kontua beste fondo batera traspasatzeko lana bideratzea.
- c) Fisikoki aurkez daitezkeen finantza-tresnen zaintza edo gordailua, eta baita dagokion sisteman kontuan egindako ohartarazpen bidez ordezkaturakoena eta gordailuan erregistratutako balore-kontu batean izendaturakoena ere. Helburu horretarako, Erakunde Gordailuzainak barne-prozedura bat ezarri beharko du, pentsio-fondo bakoitzaren egoera bere liburu edo erregistroetan indibidualizatu ahal izateko.
- d) Aurreko hizkian aipatutakoak ez beste aktibo batzuk izan, eta ondorioz, gordailuan utzi ezin badira, Erakunde Gordailuzainak hau egin beharko du:

1. Egiaztatu beharko du aktiboen jabetza pentsio-fondoari dagokiola eta Erakunde Kudeatzaileak aitortutako egoera justifikatzen duten dokumentu frogagarriak edo egiaztatagiriak lortu beharko ditu.

2. Erabat eguneratutako erregistroa eraman beharko du, pentsio-fondoan jabetzakoak diren aktiboak biltzen dituen.

- e) Pentsio-fondoak parte hartzen duen eragiketa guztien likidazioan esku hartzea. Gainera, finantza-tresnak direnez, Erakunde Gordailuzainak eragiketen egikaritzean esku hartu ahal izango du, Erakunde Kudeatzailearekin hala hitzartu duenean. Alabaina, aktiboen izaerak edo sistemaren zein dagokion merkatuaren arauak hala eskatzen dutenean, Erakunde Gordailuzainak egikaritzean esku hartuko du; betiere, Erakunde Kudeatzailearen aginduei jarraituta.
- e) Inbertsioen errendimenduak kobratzea eta bestelako errenta batzuk gauzatzea, nola aktiboak eskualdatuta, hala balore-gordailutik bertatik eratorritako bestelako eragiketen bidez.
- g) Pentsio-plan eta -fondoan jardueraren zeinahi garapenetatik eratorritako kobrantzak eta ordainketak bideratzea. Horretarako, Erakunde Gordailuzainek, Erakunde Kudeatzaileekin batera, euren baimenik gabe kobrantzak eta ordainketak egiten ez direla bermatzeko egokiak diren mekanismo eta prozedurak ezarri beharko dituzte. Erakunde Kudeatzailearen aginduei jarraituta, Erakunde Gordailuzaina izango da, hain zuzen, titularra pentsio-fondoa den kontuak eta gordailuak irekitzeaz arduratuko dena, eta fondoari dagozkion kontuetako saldoak erabiltzeko baimena emateaz arduratuko dena.
- f) Pentsio-fondoaren Erakunde Kudeatzailearen kontrola eramatea, hark betebeharrak zorrotz betetzen dituela jakiteko. Salbuespena izango da Erakunde Gordailuzainaren gaineko kontrol-funtzioa, araudian aurreikusitako erantzukizun-printzipioaren arabera.

Kontrol-funtzio horrek, besteak beste, hauek barne hartu beharko ditu:

1. Erakunde Gordailuzainak egiaztatu eta kontrolatzea pentsio-fondo bati dagozkion fondoan erabilerak prestazioetatik eratorritako ordainketekin, eskubide bateratuen mobilizazioekin eta pentsio-plan eta -fondoan gainerako eragiketa eta gastuekin bat datozela.
2. Fondoaren inbertsioak bere inbertsio-politikaren printzipioak biltzen dituen adierazpenari egokitzen direla egiaztatzea, eta pentsio-fondoa inbertitzen ari den ehunekoak arauz xedatutako mugen barnean daudela ziurtatzea. Egiaztapen horiek guztiak hiru hilean behin egin beharko dira.
3. Likidaziozko balioa kalkulatzeko erabilitako irizpide eta balioespen-metodoak egiaztatzea. Fondoan ondarea bigarren mailako merkatu ofizialetan, bestelako merkatu arautuetan edo negoziazio-sistema aldeaniztunetan negoziatu gabeko aktiboetan inbertitzen bada, Erakunde Gordailuzainak egiaztatu beharko du aktiboen balioespenean erabilitako parametroak, Erakunde Kudeatzailearen balioespen-prozedurekin bat etorrira, egokiak direla.

Zaintza-funtzioa egikaritzeko, Erakunde Kudeatzailea derrigortuta egongo da Erakunde Gordailuzainari hark bere funtzioak egikaritzeko eskatutako informazio guztia ematera.

Kontrol-jarduera hau egikaritzean, Erakunde Gordailuzaina derrigortuta egongo da jardueran hautemandako zeinahi irregulartasun garrantzitsu edo araudi-urratzeren berri berehala Erakunde Kudeatzaileari ematera, baldin eta partaide edo/eta onuradunentzat kalte nabarmena ekar badezake; eta jakinarazi eta hilabeteko epean Erakunde Kudeatzaileak egoera konpontzeko beharrezko neurriak hartu ezean, horren berri eman beharko dio Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari.

2. Erakunde Gordailuzainak indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion funtzioak eskuordetu ahal izango ditu (ez, ordea, Erakunde Kudeatzailearen zaintza-funtzioa), aldez aurretik Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeari jakinarazita; baldin eta eskuordetze hori eskuordetutako funtzioak egikaritzeko behar beste baliabide eta gaitasun baduten erakundeetan gertatzen bada. Funtzioak eskuordetzeak ez dio inola ere eragingo Erakunde Gordailuzainak partaide eta onuradunei begira duen erantzukizunari.

Eskuordetzea ezingo da egin pentsio-fondoaren Erakunde Kudeatzailean, eta ezta Erakunde Sustatzailean, Erakunde Kudeatzaileak funtzioak eskuordetu dituen erakundeetan edo pentsio-fondoaren partaide eta onuradunen interesen aurka egin dezaketen interesak dituen beste zeinahi erakundetan ere.

Erakunde Gordailuzainak erakunde eskuordetuen gaineko kontrol-funtzioa egikaritzeko beharrezkoak diren kontrol-mekanismo eta -prozedurak ezarriko ditu. Atal honetan ezarritako kontrol-funtzioa ezingo zaie eskuordetu hirugarren erakundeei.

Nolanahi ere den, erakunde eskuordetuek pentsio-plan eta -fondoan jarduera gauzatzetik eratorritako kobrantzak eta ordainketak eginez gero, Erakunde Gordailuzainaren aldez aurretiko baimen eta onespenerekin egin beharko dute.

Fondoaren aktiboen zaintza-funtzioa eskuordetzearen kasu zehatzari dagokionez, erakunde eskuordetuak Europako Esparru Ekonomikoko lurralde batean helbidea duen erakundea izan beharko du, dagokion estatu-kideko agintaritzek baloreen eta eskudiruaren zaintza eta gordailurako kreditu-erakunde gisa edo inbertsio-zerbitzuen enpresa gisa aitortua, edo bestela, modu iraunkorrean Espainian kokatuta dauden hirugarren herrialdeetako erakundeek Espainiako legearekin bat eginda baloreen eta eskudiruaren zaintzarako inbertsio-zerbitzuen enpresa gisa baimendua. Gainera, lan egin behar duen merkatuen konpentsazio-, likidazio- eta erregistro-sistemetan parte hartzen duen erakundea izan beharko du.

4. KAPITULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEAREN ETA GORDAILUZAINAREN ORDAINSARIAK

16. KAPITULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEAREN ETA GORDAILUZAINAREN ORDAINSARIAK

1. Erakunde Kudeatzaileak, bere funtzioak gauzatzeagatik, espresuki xedatuta dagoen kudeaketa-komisio bat jasoko du, guztizko ordainsaritzat. Komisio horrek ezingo ditu gainditu atal honetan xedatutako mugak; betiere, araudi aplikagarriak une oro finkatutakoei lotuta. Komisio horiek zehaztuta eta individualizatuta etorriko dira pentsio-fondoan integratutako pentsio-plan bakoitzerako.

Erakunde Kudeatzaileak irabazitako komisioak, funtzioak eskuordetutako erakundeei dagozkien ordainsariak barne, inola ere ez dira izango egotzi beharreko egoera-kontuen

balioaren urteko ehuneko 1,5etik gorakoak. Pareko muga aplikatu ahal izango zaie egunero, nola pentsio-plan integratu bakoitzari, nola pentsio-fondo osoari, eta baita indibidualki partaide eta onuradun bakoitzari ere.

Aurreko muga honako honekin ordezkatu ahal izango da: egoera-kontuaren balioaren urteko ehuneko 1,2 gehi emaitza-kontuaren ehuneko bederatzia.

Komisioaren kalkulua, emaitza-kontuaren arabera, soilik aplikatuko da pentsio-fondoaren eguneroko likidaziozko balioa aurretik erdietsitako zeinahi balio baino handiagoa denean. Ondorio horietarako, pentsio-fondoak gehienez ere erdietsitako eguneko likidaziozko balioa hiru urteko epean hartuko da kontuan.

Emaitza-kontuaren arabera kudeaketa-komisioen sistema ezartzeko, erreferentziazko hasierako gehieneko likidaziozko balioztat hartuko da ezarri aurreko egunari dagokiona. Emaitzen araberrako kudeaketa-komisioen sistema berrezarritik gero, erreferentziazko hasierako likidaziozko balioztat hartuko da berrezarritik aurreko egunari dagokiona, eta aurreko hiru urteetako gehieneko likidaziozko balioaren mugarekin.

2. Erakunde Gordailuzainak bere funtzioak gauzatzegatik guztizko ordainsaritzat jasoko du Erakunde Gordailuzainak eta Erakunde Kudeatzaileak elkarren artean kontratuz ezarritako gordailu-komisio bat; betiere, aurretik, Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordearekin espresuki ados jarrita, eta inoiz ezingo da gainditu atal honetan xedatutako muga, araudi aplikagarriak une bakoitzean finkatutakoari lotuta. Komisio horiek zehaztuta eta indibidualizatuta etorriko dira pentsio-fondoan integratutako pentsio-plan bakoitzerako.

Erakunde Gordailuzainak irabazitako komisioak, funtzioak eskuordetutako erakundeei dagozkien ordainsariak barne, inola ere ez dira izango egotzi beharreko egoera-kontuen balioaren ehuneko 0,25etik gorakoak. Pareko muga aplikatu ahal izango zaie egunero, nola pentsio-plan integratu bakoitzari, nola pentsio-fondo osoari, eta baita indibidualki partaide eta onuradun bakoitzari ere. Komisio horrez gainera, Erakunde Gordailuzainek bestelako komisio batzuk jaso ahal izango dituzte inbertsio-eragiketen likidazioengatik; betiere, baldin eta dagozkion tarifak arautzen dituzten arau orokorrekin bat badatoz.

3. Pentsio-fondoa beste pentsio-fondo bateko partaidetza-kontuaren titularra denean, edo inbertsio kolektiboko instituzioetan zein arrisku-kapitaleko erakundeetan inbertitzen badu, aurreko mugak elkarrekin aplikatuko dira metatutako eta Erakunde Kudeatzaileek edo Gordailuzainek edo instituzioek jaso beharreko komisioetan.

Era berean, finantza-aktiboen kudeaketa- eta gordailutze-kontratuetatik eta Araudiaren 74.2 artikuluan aurreikusitako kontu globalen erabileratik eratorri eta pentsio-fondoan egin beharreko ordainketa, hain zuzen, pentsio-fondoaren Erakunde Kudeatzaile eta Erakunde Gordailuzainari dagokienaren barnean txertatuko da, eta ezingo ditu gainditu artikulua honetan ezarritako mugak.

4. Pentsio-fondoaren Erakunde Kudeatzaileak Pentsio Fondo eta Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dizkio une bakoitzean aplikatu beharreko ehunekoak, nola pentsio-fondoan integratzean pentsio-plan bakoitzarentzat hitzartutako kudeaketa- eta gordailutze-komisioengatik, hala geroko aldaketengatik; betiere, plana formalizatzen denetik edo aldaketa-

hitzarmena sinatzen denetik 10 eguneko epean. Betebehar bera dago ezarrita pentsio-fondoak fondo irekietan duen partaidetzarako.

Aurreko paragrafoan xedatutako jakinarazpen-betebeharra izango da, halaber, pentsio-fondoak fondo ireki bezala jarduten badu, pentsio-fondo inbertitzaileei dagozkien partaidetza-kontuei aplikagarriak zaizkien kudeaketa- eta gordailutze-komisioei dagokienez. Artikulu honetan xedatutako komisioak ezingo dira aplikatu, harik eta atal honetan aipatutako jakinarazpena egin arte. Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiak komisio horiek argitara eman ditzake.

5. ATALA. ERAKUNDE KUDEATZAILEA ETA GORDAILUZAINA ORDEZTEA

17. ARTIKULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEA EDO GORDAILUZAINA ORDEZTEA, EUREK ESKATUTA

- 1) Erakunde Kudeatzaileak, edo Gordailuzainak, bere ordezkapena eska dezake, aldezturik ordezkaturako duen Erakundea aurkeztuta.

Horretarako, Fondoaren Kontrol Batzordearen eta fondoaren funtzionamendu-arauetan zehaztutako baldintzak beteta horiei proposaturako ordezkapen-proiektuko funtzioak egikaritzen jarraituko duen Erakunde Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren onespena beharko du.

- 2) Erakunde Kudeatzailearen ordezkapena gauzatzeko, aldezturik bete beharreko baldintza izango da Pentsio Plan eta Fondoaren Araudien kontuen formulazio, auditoria eta publikotasunari buruz xedatutakoa beteta izatea, eta hala badagokio, uztera doan erakundeak bere kudeaketarekin lotutako erantzukizunak betetzeko eskatzen zaizkion beharrezko bermeak izatea.
- 3) Erakunde Kudeatzaileak edo Gordailuzainak ezingo dute, inola ere, euren funtzioak egikaritzeari utzi, euren ordezkurak izendatzeko baldintza eta izapide guztiak bete aurretik.

18. ARTIKULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEA EDO GORDAILUZAINA ORDEZTEA, FONDOAREN KONTROL-BATZORDEAREN ERABAKIZ

Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeak Erakunde Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren ordezkapena hitzar dezake, kudeaketaz edo gordailutzeaz arduratzeko prest dagoen beste erakunde bat izendatuta.

Egiazko ordezkapena egin aurretik, Erakundeak bere funtzioak egikaritzen jarraitu beharko du.

19. ARTIKULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEAK EDO GORDAILUZAINAK BEREN EGINKIZUNEI UKO EGITEA, ALDEBAKARREKO ERABAKIZ

Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzaileak edo Gordailuzainak uko egin ahal izango diete, aldebakarreko erabakiz, beren eginkizunei.

Horretarako, Erakunde Kudeatzaileak edo Gordailuzainak bere ukoaren berri eman beharko dio, jakinarazpen fede-emailen bitartez, Fondoaren Kontrol Batzordeari; edo bestela, fondoan integratutako Planaren edo Planen sustatzaileari. Erakunde Kudeatzaileak ezingo die

bere eginkizunei uko egin, aldebakarreko erabakiz, Pentsio Plan eta Fondoaren Araudian kontuen formulazio, auditoria eta publikotasunari buruz aurreikusitakoa edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiak aurreikusitakoa aldeztu aurretik bete ez badu.

Fondoaren Kontrol Batzordeak ez balu onartuko Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren ukoa, uko horrek soil-soilik jakinarazpen fede-emailea egin eta bi urteko epea igarotakoan izango lituzke ondorio lotesleak; eta uztera doan Erakunde Kudeatzailearen kasuan, baldin eta kontuen formulazio-, auditoria- eta publikotasun-baldintzak bete baditu, eta hala badagokio, bere kudeaketarekin lotutako erantzukizunak betetzeko eskatutako beharrezko bermeak badauzka.

Aipatutako bi urteko epe hori igaro, eta ordeztu Erakunderik izendatu ezean, Pentsio Fondoa desegin egingo da.

20. ARTIKULUA. ERAKUNDE KUDEATZAILEA EDO GORDAILUZAINA DESEGITEA, KONKURTSO-PROZEDURA EDO ERREGISTROTIK KENTZEA

Desegiteak, Erakunde Kudeatzailearen edo Gordailuzainaren konkurtso-prozedurak eta Administrazio Erregistrotik kentzeak zerikusia duen Erakundearen etena ekarriko du, Fondoaren kudeaketa- edo zaintza-lanari dagokionez.

Erakunde Kudeatzailea balitz, kudeaketa, behin-behinean, Erakunde Gordailuzainaren bizkar geratuko da.

Funtzioak gauzatzeari uzten dion Erakundea Gordailuzaina balitz, berriz, Fondoaren finantza-aktiboak eta aktibo eraginkorrak Espainiako Bankuan gordeko dira, harik eta ordeztu izendatu arte.

Bi kasuetan, urtebeteko epean Erakunde Kudeatzaile edo Gordailuzain berria izendatu ezean, Fondoa desegin egingo da.

21. ARTIKULUA. ARAU BATERATUAK

1) Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzailea edo Gordailuzaina desegiteko edo berria izendatzeko ez da administrazioaren baimenik behar. Nolanahi ere den, Pentsio Fondo eta Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio, Fondoaren Kontrol Batzordeak erabakia hartu eta 10 eguneko epean, eta dagozkien erabakien egiaztagiria aurkeztuta.

Behin ordezkapenaren berri eman ostean, dagokion eskritura publikoa egingo da. Bertan, aipatutako jakinarazpenaren egiaztapena jaso beharko da. Ordezkapen-eskritura Merkataritza Erregistroan eta Pentsio Fondo eta Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiaren Administrazio Erregistroan inskribatu beharko da, araudi aplikagarrian xedatutako prozeduraren arabera.

2) Bai Erakunde Kudeatzailearen kontrolean gertatzen diren aldaketen berri, bai Kontseilariaren ordezkapenaren berri eman beharko zaio Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeari, indarrean dagoen araudian aurreikusitako informazio-prozeduren baitan.

- 3) Pentsio-plan indibidualetan, pentsio-fondoaren Erakunde Kudeatzailea edo Gordailuzaina ordezkatzeko erabakien berri eman beharko zaie partaideei eta onuradunei, ondorioak izan baino gutxienez hilabete lehenago.

III. TITULUA. FONDOAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-ERREGIMENA

22. ARTIKULUA. PENSIO-FONDOAREN INBERTSIO-POLITIKA

- 1) Pentsio Fondoaren aktiboa partaide eta onuradunen interesen arabera inbertituko da; betiere, segurtasun-, errentagarritasun-, askotarikotze-, sakabanatze- eta likidezia-irizpideekin eta diru-kongruentzia eta helburu horietarako epe egokien irizpideekin bat etorrira.
- 2) Pentsio Fondoak, inbertsio-gaiei dagokienez, zorrotz helduko dio Pentsio Plan eta Fondoaren Araudian zein Legean xedatutakoari, eta baita horiek garatzen, osatzen edo ordezkatzeko dituen Araudiari ere.
- 3) Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeak, Erakunde Kudeatzailearen partaidetzarekin, bere inbertsio-politikaren printzipioak biltzen dituen adierazpen idatzi bat osatuko du. Adierazpen horri behar beste publikitate egingo zaio, eta kasu guztietan, Pentsio Fondoaren Erakunde Gordailuzainari aurkeztu beharko zaio.

Adierazpen horrek, gutxienez, honako gai hauek izango ditu hizpide:

- a) Inbertsioak aukeratzeko aintzat hartutako irizpideak.
- b) Inbertsioei lotutako arriskuak neurtzeko metodoak eta arrisku horiek kontrolatzeko kudeaketa-prozesuak; bereziki, merkatu arautuetan negoziatu gabeko aktiboak, aktibo egituratuak eta eratorriak.
- c) Aktiboak modu estrategikoan kokatzea, euren konpromisoen izaera eta iraupena aintzat hartuta, eta betiere, zorroaren gutzizkoarekin alderatutako inbertsioaren gehieneko edo/eta gutxieneko ehunekoak barne, aktibo eratorrien erabilerari edo erabilerarik ezari erreferentzia berezia eginez eta euren atxikitze maila adierazita, edo/eta aktibo egituratuak eta merkatu arautuetan negoziatu gabeko aktiboaren erabilerari edo erabilerarik ezari erreferentzia eginez.
- d) Inbertsioei lotutako arriskuak, neurtzeko metodoak eta horien kontrolerako kudeaketa-prozesuak barne.
- e) Xedatutako printzipioak betetzen ote diren jakiteko gainbegiratze- eta jarraipen-prozesuak.
- f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Adierazpena eguneratu egingo da fondoaren inbertsio-politikan aldaketa nabarmenak gertatzen direnean, eta kasu guztietan, finantza- eta aktuario-berrikustearen ondorioen arabera egin beharreko aldaketen eraginez.

Finantza-erakunde batek, Araudiaren 77. artikuluan xedatutako baldintzetan, kanpoko berme bat badu pentsio-plan indibidual batzuetarako, egoera hori espresuki jaso beharko da inbertsio-politikaren printzipioak biltzen dituen adierazpenean.

Pentsio Fondo pertsonalak bere inbertsio-erabakietan aintzat hartzen baditu zorroa osatzen duten hainbat aktibori eragiten dieten finantzaz bestelako arriskuak, bere inbertsio-politikaren printzipioak biltzen dituen adierazpenean eta urteko kudeaketa-txostenean jasotzea erabakitako informazioak Araudiaren 69.5 artikuluan aipatutako baldintzak bete beharko ditu.

Pentsio-plan indibidualetan, fondoaren inbertsio-politika aldatu ahal izango da, hilabeteko aurrerapenez partaideei eta onuradunei jakinaraziz gero.

- 4) Araudi aplikagarrian aurreikusitakoarekin bat etorrira, pentsio-fondoak bete beharreko likidezia-koefizientea ezarri beharko da, atxikitako planen premiak eta ezaugarriak eta aktibo likidoen eskakizun-aurreikuspenak aintzat hartuta.

23. ARTIKULUA. FINANTZA- ETA AKTUARIO-SISTEMA

- 1) Fondoan integratutako Pentsio Planak egikaritzean erabiliko den finantza- eta aktuario-sistema, zehazki, kapitalizazio-sistema indibiduala da.
- 2) Plan elkartu definitu eta mistoen finantza- eta aktuario-sistema gutxienez hiru urtean behin berrikusi behar da, aktuario independente baten premiazko laguntzarekin, eta hala badagokio, baita pentsio-planaren finantza- eta aktuario-jarreraren azterketa osotua egiteko beharrezkoak diren beste profesional independenteen laguntzarekin ere, Pentsio Plan eta Fondoaren Araudian eta beste garapen-arau batzuetan aurreikusitakoarekin bat etorrira. Kaudimen-marjina dakarten pentsio-planetan, aipatutako berrikustea urtean behin egin beharko da.

24. ARTIKULUA. ERAGIKETAK EGITEKO BALDINTZA OROKORRAK

- 1) Oro har, une bakoitzean indarrean dagoen legezko araudiak Pentsio Fondoaren inbertsiorako egokitzen jotako zeinahi aktibotan inbertitu ahal izango du Fondoak bere ondarea; betiere, araudi horrek onartutako ehunekoen barnean.
- 2) Pentsio Fondo honengatik, merkatu arautu edo antolatuetan kotizaziora onartutako finantza-aktiboen arabera egingo dira eragiketak, eskaintza-lehiarekin eta eskaera pluralekin prezioetan eragin nabarmena izan dezaten, non eta ez den bilatzen Fondoarentzat merkatuaren ondoriozkoak baino baldintza hobeak ekarriko dituen eragiketa-moduren bat.

Aktiboek Europako Esparru Ekonomikoan egon beharko dute, indarrean dagoen araudiarekin bat etorrira.

- 3) Ondasun higiezinak, eskuratu eta besterendu aurretik, ezinbestean tasatu beharko dira. Tasazio hori Hipoteka Merkatua Arautzeko Legean eta haren osagarri den legedian aurreikusitako moduan egin beharko da.
- 4) Ez Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzaileak eta Gordailuzainak, eta ezta bertako kontseilari eta administratzaileek, Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeko kideek, Planaren Kontrol Batzordeko kideek eta pentsio-planen sustatzaileek ere, ezingo dute eurentzat erosi zein saldu fondoaren aktiborik, ez zuzenean, ez pertsona edo erakunde bitartekarien bidez. Pareko murrizketa aplikatuko zaio kredituen kontratazioari ere. Ondorio horietarako, ulertuko da eragiketa pertsona edo erakunde bitartekari batek gauzatu duela, baldin eta honako hauetakoren batek egikaritzen badu: zuzenean edo zeharka ahaidetasun-lotura bat duen pertsonak, odolkidetasuna duen edo bigarren mailara arteko (berori barne) ezkontza-ahaidetasuna duen pertsona batek, ordezkari edo fiduziarioren batek, edo zeinahi elkartek, baldin eta aipatutako aholkulari, administratzaile, zuzendari, erakunde edo Kontrol Batzordeko kideek, zuzenean zein zeharka, kapitalaren % 25 edo gehiago baldin badute, edo erabakitze-boterea egikaritzea dakarten funtzioak gauzatzen badituzte.
- 5) Aurreko paragrafoan ez dira aintzat hartuko Erakunde Gordailuzainaren ohiko eragiketen barneko aktiboaren eskuratze- edo lagapen-eragiketak.
- 6) Pentsio Fondoaren ondasunak Fondoaren betebeharrak gauzatu direla ziurtatzeko bermetzat baino ezingo dira hartu, indarrean dagoen legediak xedatutako baldintzetan.

25. ARTIKULUA. HIRUGARRENEKIKO BETEBEHARRAK

- 1) Hirugarrenekiko betebeharrak ezingo dira izan, inola ere, Fondoaren aktiboaren ehuneko bostetik gorakoak. Ondorio horietarako, ez dira aintzat hartuko hauek:
 - a) Dagokion eragiketaren guztizko likidazioa gauzatu arte igarotzen den denboran eskuratutako ondare-elementuetan sortutako zorrak.
 - b) Dagozkion prestazioak ordaindu arte onuradunei begira dauden betebeharrak.
 - c) Partaideen eskubide bateratuei dagozkien betebeharrak.
- 2) Pentsio Fondoaren hartzekodunek ezingo dituzte euren kredituak indarrean jarri Fondoan integratutako Planen Sustatzaileen ondareetan, eta ezta partaideenetan ere, horien erantzukizuna atxikita dauden Pentsio Planetara egin beharreko ekarpen-konpromisoetara egongo baita mugatuta.
- 3) Fondoaren Ondareak ez du erantzungo Erakunde Sustatzaile, Kudeatzaile eta Gordailuzainaren zorreatatik.

26. ARTIKULUA. FONDOAREN ONDARE-BALIOESPENA

Fondoaren ondare-balioa finkatzeko, edo hala badagokio, hornidura matematiko edo kapitalizazio-fondoaren estaldura maila zenbatzeko, Fondoaren inbertsioa gauzatzeko baliatuko diren aktiboak indarrean dagoen araudian xedatutako irizpideen arabera balioetsiko dira.

27. ARTIKULUA. EMAITZAK EGOZTEA

- 1) Emaitzak finkatzeko denbora, hain zuzen, urte naturala izango da. Era honetan lortuko dira emaitzak: Fondoaren diru-sarrera, gastu eta ondare-hazkunde eta -beheratze guztiak ken Erakunde Kudeatzailearen eta Erakunde Gordailuzainaren komisioak, auditoria-gastuak, Fondoaren Kontrol Batzordearenak eta Araudian aurreikusitako gainerako gastu eta hornidura guztiak; Plan bakoitzari zuzenean egotzi beharreko gastuak izan ezik.
- 2) Diru-sarrera gordinak, artikulua honen hirugarren atalean aipatu gabeko gastu gordinak eta Fondoaren ondare-hazkunde eta -beheratzeak atxikitako Planei egotziko zaizkie, egunero, Fondoaren guztizko ondarearekin alderatuta euren egoera-kontuen zenbatekoaren proportzioan; planek sinatutako aseguru-poliza edo berme-kontratuak izan ezik, horiek soil-soilik plan kontratatzaileari egotziko baitzaizkio.
- 3) Erakunde Kudeatzailearen eta Erakunde Gordailuzainaren komisio-gastuak, auditoria-gastuak, Fondoaren Kontrol Batzordearenak eta araudian aurreikusitako gainerako gastu eta hornidura guztiak atxikitako planei egotziko zaizkie, plan bakoitza Fondoari atxikitzean xedatutako irizpideekin bat etorrita.

28. ARTIKULUA. URTEKO KONTUAK ETA AUDITORIA

- 1) Pentsio Fondoaren ekitaldi ekonomikoak bat etorriko dira urte naturalarekin. Lehenengo ekitaldia eragiketen hasieratik urte bereko abenduaren hogeita hamaikara artekoa izango da.
- 2) Indarrean dagoen araudiak xedatutako gehieneko epearen baitan, ekitaldi bakoitzean, Erakunde Kudeatzaileak Balantzea, Emaitza-kontua eta Fondoaren aurreko ekitaldiko Memoria eta Txostena osatu beharko ditu, eta dokumentu horiek Fondoaren Kontrol Batzordeari helarazi, hark onespena eman diezaien.
- 3) Epe berean, legez Kontu Ikuskatzaileak diren aditu-elkarteez edo aditu independenteek Fondoaren dokumentazioa ikuskatu beharko dute. Eta horien txostenek kontabilitate-, finantza- eta aktuario-ezaugarriak jaso beharko dituzte, pentsio-plan eta -fondoaren araudia betetzeari buruzkoa espresuki adierazita. Eta behin auditoria eginda, Fondoaren eta Atxikitako Planen Kontrol Batzordeetan aurkeztuko dira, eta baita Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusian are.
- 4) Erakunde Kudeatzaileak, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren ondorengo sei hilekoan, arestian aipatutako dokumentuak argitaratu beharko ditu, zabal daitezzen.

IV. TITULUA. PLANEN INTEGRAZIOA, BAZTERKETA ETA LIKIDAZIOA

29. ARTIKULUA. PLANEN INTEGRAZIOA

- 1) Plan batek Pentsio Fondoan integratu nahi badu, bere sustatzaileak edo Kontrol Batzordeak (horrelakorik izanez gero), eskaera aurkeztuko du, besteak beste, Funtzionamendu Arau hauen honako alderdi hauek adieraziz eta horiek onartzen dituela esanez:

- a) Planaren Egoera Kontua zenbatzeko xedatutako irizpideak; berebiziko arreta eskainiz Fondoak egindako inbertsioetan lortutako emaitzak egozteko irizpideei.
 - b) Funtzionamendu-gastuak.
 - c) Planaren Egoera Kontua Kontrol Batzordeak izendatutako beste Pentsio Fondo batera traspasatzeko baldintzak; berebiziko erreferentzia eginda ondasunen eta eskubideen eskualdatzea gauzatzeko formulari, eta hala badagokio, eragiketak dakartzan kostuei eta periodifikatzeari.
 - d) Plana likidatu behar izanez gero, gauzatu beharreko prozedura.
- 2) Era berean, Fondoaren Kontrol Batzordeak beharrezkotzat jotako bestelako dokumentazio juridiko, ekonomiko, aktuarial, auditoriazko edo beste zeinahi motatakoa aurkeztu beharko du, eskatutako azterlan eta irizpenak aurkeztuta.
 - 3) Fondoaren Kontrol Batzordeak, halakorik izanez gero, edo hala badagokio, planen sustatzaileak edo Fondoaren Kudeatzaileak, gehienez ere hilabeteko epean, Pentsio Plana onartzen duela adierazi beharko du, bere erantzukizunpean ulertuta indarrean dagoen araudiak xedatutako baldintzak betetzen dituela; edo hala ez bada, uko egiten diola. Uko eginez gero, arrazoiak adierazi beharko dira.
 - 5) Nolanahi ere den, Fondoan integratu nahi den aurreneko Pentsio Planaren onespena, hain justu, Fondoaren Erakunde Kudeatzaileak eman beharko du.

30. ARTIKULUA. PLANEN EGOERA-KONTUAK ERABAKITZEA

- 1) Pentsio Plan bakoitzak egoera-kontu bat izango du Fondoan, bertan duen partaidetza ekonomikoa irudikatzen duena. Kontu horretan txertatuko dira, zehazki, partaideen ekarpenak, Fondoaren emaitza egotziak (Funtzionamendu Arau hauen 28. artikuluekin bat etorruta), aktiboen balioespen-aldeak eta Planaren gastu eta diru-sarrera espezifikoak. Planaren prestazioen ordainketak bere egoera-kontuan egingo dira.
- 2) Fondoak egunero kalkulatu du bertan integratutako planen egoera-kontuaren balioa.

Fondoan integratutako plan bakoitzaren egoera-kontua zenbatzeko, Araudian adierazitako inbertsioen balioespen-irizpideak aplikatuko dira, eta hala ez bada, kontabilitate-balioespenerako arau orokorrenak, edo hala badagokio, Pentsio Fondoetan espezifikoki aplikatzeko xedatutakoenak.

- 3) Pentsio-planetara ekarpenak egiteko, eskubide bateratuen mobilizaziorako, prestazioak aitortzeko eta salbuespen berezietan eskubide bateratuak likidatzeko, justu ekarpena, mobilizazioa, likidezia edo prestazio-ordainketa gauzaten den egunean Planak egoera-kontuan duen balioa erabiliko da.

Atal honetan xedatutakoa ulertuko da, mobilizaziorako, likideziarako edo prestazio-aitortzarako ekarpen- edo eskaera-egunean duen baliozkotasunari edo ondorio juridikoei kalterik eragin gabe.

Arau hauetan aurreikusitakoaren ondorioz, eskaera-eguntzat ulertuko da merkaturatzaileak, Kudeatzaileak, Gordailuzainak, Planaren Sustatzaileak edo Planaren Kontrol Batzordeak idatziz edo beste zeinahi bidetatik eskaera jaso eta frogatzat hartzen duen eguna, partaideak edo onuradunak edo horien ordezkari gisa diharduen hirugarren batek bidalita. Eskaerak, halaber, beharrezko dokumentazio guztia bildu beharko du. Eta hartzailea derrigortuta egongo da eskatzaileari jaso izanaren froga helaraztera.

Erakunde Kudeatzailea izango da partaide eta onuradunen eskaerak gauzatzeko eta izapideak egiteko Araudian aurreikusitako epeetan gerta litezkeen atzerapenen erantzulea; betiere, Erakunde Kudeatzaileak atzerapena eragin duenaren aurka jotzeko duen aukerari kalterik eragin gabe.

31. ARTIKULUA. PLANAREN EGOERA-KONTUAREN MOBILIZAZIOA

- 1) Fondoari atxikitako Plan Elkartuaren Kontrol Batzordeak, edo Planaren Sustatzaileak (baldin eta Sistema Indibidualekoa bada), Planaren borondatezko bereizketa hitzar dezake, planaren egoera-kontuan dauden baliabideak beste Fondo batera traspasatzeko aginduta.
- 2) Planaren baliabide ekonomikoen mobilizazioa, hain zuzen, Fondoaren Kontrol Batzordeak dagokion Planaren Kontrol Batzordearekin, edo Plana Sistema Indibidualekoa bada, Sustatzailearekin batera hitzartutako modu eta epeetan egingo da.

Adostasunik lortu ezean, Planaren Kontrol Batzordeak, edo hala badagokio, bereizitako Planaren Sustatzaileak Fondoaren Kontrol Batzordeari jakinaraziko dio ea bere pentsio-fondoaren baitako egoera-kontuari dagozkion baliabide ekonomikoak oso-osorik modu likidoan mobilizatzea nahi duen, edo proportzionalki Planari dagozkion aktiboen eskualdatzeen bidez.

Fondoak, sistema indibidualeko plan bakarra edo gutxi batzuk baino ez dituelako, Kontrol Batzorderik ez badu, eta plan guztiek Sustatzaile bera badute, Sustatzaile horixe izango da mobilizazioa egikaritzeko modua eta epeak xedatuko dituen; betiere, partaide guztien interesen arabera jokatuta, nola mobilizazioa gauzatuko dutenena, hala Fondoan geratuko direnena.

- 3) Aipatutako egoera-kontuaren arabera Planari proportzionalki dagozkion aktiboen eskualdatze bidez egiten bada mobilizazioa, Erakunde Kudeatzaileak, ezinbestekak hala bultzatzen ez badu bederen, Planaren Kontrol Batzordeak, edo hala badagokio, Planaren Sustatzaileak izendatutako Fondo batera eskualdatuko ditu aipatutako aktiboak, Planaren Kontrol Batzordeak aurreko atalean aurreikusitako jakinarazpena gauzatzen duen unetik aurrera, edo bi Batzordeen artean hitzartutako epetik aurrera, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Fondoaren Kontrol Batzordeari dagokio, eta halakorik ez bada, Planaren edo Plan Indibidualen Sustatzaileari, aurkeztu behar diren ondasun zehatzen erabakitasuna; betiere, partaide guztien interesen arabera jokatuta, nola mobilizazioa gauzatuko dutenena, hala Fondoan geratuko direnena.

- 4) Mobilizazio osoa eskudirutan egiten bada, epea gehienez ere sei hilabetekoa izango da.

- 5) Mobilizazioa gauzatu gero, egoera-kontuaren balioespenerako unea transferentzia bakoitza, osorik edo partzialki, gauzatzen den eguna izango da.
- 6) Mobilizazioa 3) atalean adierazitakoaren arabera gauzatzen bada, Fondoaren Kontrol Batzordeak, edo hala badagokio, Planaren Sustatzaileak zehaztuko ditu Pentsio Fondo berrira transferitu beharreko ondasun eta eskubideak eskualdatzeko tresnak, eta baita gauzatzeko izango diren epeak ere, atal berean adierazitako gehieneko epearen baitan.

Nolanahi ere den, Araudian xedatutako tasazioa egin ostean gauzatuko den ondasun higiezinaren eskualdatzea honako hauen bidez egingo da: eskritura publikoa; balioen eskritura, fede-emaila publiko baten edo dagokion merkatuko kide baten esku-hartzearekin; eta diru-baturen eskritura, banku-eragiketen bitartez.

- 7) Fondoaren bereizketaren ondorioz sortutako gastu eta zerga guztiak bereizketa eskatu duen Pentsio Planaren bizkar joango dira, tokiko zergak edo Autonomia Erkidegoetakoak barne.

32. ARTIKULUA. PENTSIÓ-PLANEN LIKIDAZIOA

- 1) Zehazpenetan edo indarrean dagoen araudian aurreikusitako zeinahi arrazoi dela tarteko, eta egoera horren berri eman eta hogeita hamar eguneko epean, Fondoan integratutako Plan bat amaitzea erabakitzen bada, Pentsio Fondoaren Kontrol Batzordeak erabakiko du Planaren likidazioa irekitzea.
- 2) Fondoaren Kontrol Batzordeak eta Erakunde Kudeatzaileak gauzatuko dituzte likidazio-eragiketak, Planaren zehazpenetan aurreikusitakoa aintzat hartuta.
- 3) Pentsio-planen likidazioa zehazpenetan xedatutakoari egokituta gauzatuko da, eta kasu guztietan, eragindako prestazioen berme indibidualizatua errespetatu eta partaideen eskubide bateratuak txertatzea aurreikusi beharko du; eta hala badagokio, planean, beste pentsio-plan batzuetan, aurreikuspen-plan aseguratuetan edo gizarte-aurreikuspeneko plan enpresarialetan geratzen diren eta eragindako prestazioetatik eratorritako eskubideak txertatzea.

Eragindako prestazioen bermea Planaren zehazpenetan xedatutako moduan antolatuko da, edo bestela, Fondoaren Kontrol Batzordeak hitzartutako sistemaren bitartez, likidatu beharreko Planaren Kontrol Batzordearen proposamenez, edo Sistema Indibidualeko Plana bada, Sustatzailearen proposamenez.

Likidatutako Planaren partaideen eskubide bateratuak txertatuta dituen Pentsio Plana beste Fondo batean integratuta balego, honako Funtzionamendu Araudi hauen 31. artikuluan xedatutako egoera-kontuen mobilizazioari buruzko arauak aplikatuko dira.

- 4) Planaren likidazio-eragiketek sortutako gastuak haren kontura joango dira.

V. TITULUA. FONDOA ALDATZEA ETA DESEGITEA

33. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDU-ARAUAK ALDATZEA

1. Pentsio Fondoaren Funtzionamendu Arauak modu hauetakoren batean aldatu ahal izango dira:

a) Erakunde Kudeatzaileak eta Gordailuzainak elkarrekin hala erabakitzen badute, Fondoaren Kontrol Batzordearen onespenerekin; honako hauen bidez:

- Fondoak hainbat Plan bideratzen baditu, kideek ordezkaturako interes ekonomikoen bi herenen aldeko botoarekin hartutako erabakia.
- Fondoak Plan bakarra bideratzen badu, berriz, kide guztien bi herenen aldeko botoarekin hartutako erabakia.

Fondoak, Sistema Indibidualeko plan bakarra edo sustatzaile beraren hainbat plan biltzen dituelako, Kontrol Batzorderik ez badu, sustatzailearen onspena beharko da.

b) Fondoaren Kontrol Batzordearen ekimenez, gehiengo kualifikatuak hala eskatuta, honako hauen bidez:

- Fondoak hainbat Plan bideratzen baditu, kideek ordezkaturako interes ekonomikoen bi herenen aldeko botoarekin hartutako erabakia.
- Fondoak Plan bakarra bideratzen badu, berriz, kide guztien bi herenen aldeko botoarekin hartutako erabakia.

c) Fondoak Kontrol Batzorderik ez badu, integraturako planaren edo planen Sustatzailearen erabakiz.

2. Funtzionamendu-arauen aldaketek eta pentsio-fondoaren izendapenaren, fondoaren Erakunde Kudeatzailearen, Gordailuzainaren edo sustatzailearen ordezkapen edo izendapen berrirako arauen aldaketek eta fondoaren kategoria-aldaketek (enpleguak edo pertsonalak, esaterako) ez dute aldez aurretiko administrazio-baimenik behar; alabaina, Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaizkio, dagokion erabakia hartu eta gehienez ere hamar eguneko epean. Eta gerora, dagokion eskritura publikoa egingo da; eta bertan, aipaturako jakinarazpena egiaztatuko da. Dagokion eskritura publikoa egin ondoren, Merkataritza Erregistroan eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuko da, araudi aplikagarrian aurreikusitakoarekin bat etorrira.

3. Pentsio-planak integratzeko eta fondoa pentsio-fondo ireki bihurtzeko ere ez da aldez aurretiko administrazio-baimenik beharko; alabaina, Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio, araudi aplikagarrian aurreikusitako moduan, erabaki hartu eta gehienez ere 10 eguneko epean.

34. ARTIKULUA. FONDOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

- 1) Fondoa desegin egingo da honako arrazoi hauengatik:
 - a) Pentsio-fondoarentzako administrazio-baimena baliogabetzeagatik, Legeak xedatutakoarekin bat eginda edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiak esandakoarekin bat eginda.
 - b) Fondoaren Kontrol Batzordea gelditzeagatik, funtzionatzea ezinezkoa dela. Pentsio-fondoaren egiazko garapenerako ezinbestekoak diren erabakiak hartzeko ezintasun garbia dagoen kasuan gertatzen da hau, eta hala, gelditu edo eragotzi egiten da beronen funtzionamendua.
 - c) Araudiaren 85. artikuluko 4. eta 5. ataletan aurreikusitako kasuetan, Erakunde Kudeatzaile edo Gordailuzain berriaren izendapenerako bertan finkatutako epeak igaro, eta izendapen hori ez egiteagatik.
 - d) Fondoaren Kontrol Batzordearen erabakiz, gehiengo kualifikatuak hala eskatuta, honako hauen bidez:
 - Fondoak hainbat Plan bideratzen baditu, kideek ordezkaturako interes ekonomikoen bi herenek hartutako aldeko erabakia.
 - Fondoak Plan bakarra bideratzen badu, berriz, kide guztien bi herenen aldeko botoarekin hartutako erabakia.
 - e) Fondoak Kontrol Batzorderik ez duenean, Sustatzailearen erabakia, Erakunde Kudeatzailearen eta Erakunde Gordailuzainaren adostasunarekin.
 - f) Indarrean dagoen araudiak edo honako Funtzionamendu Arau hauek xedatzen dituzten gainerako kasuetan.
- 2) Nolanahi ere den, Pentsio Fondoa iraungi aurretik, eragindako prestazioak eta indarrean dauden planen jarraipena bermatuko dira indibidualki, dagoeneko eraturako edo eratzeko dagoen beste Pentsio Fondo baten bitartez.
- 3) Pentsio-fondoaren desegite- eta likidazio-erabakiaren berri eman beharko zaio, egiaztagiri eta guzti, Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari, erabakia hartu eta gehienez ere 10 eguneko epean. Erakunde Kudeatzaileak bere web-orrian, edo taldearenean, argitaratu beharko du, edo bestela, erakunde horren egoitza soziala dagoen eremuan indar handieneko egunkarietakoren batean. Erabaki hori Erakunde Kudeatzaileak egindako eskritura publiko bihurtuko da, eta bertan, aipaturako jakinarazpena egiaztatu beharko da. Eta Merkataritza Erregistroan eta Administrazio Erregistroan inskribatu, Pentsio Plan eta Fondoaren Araudiaren 60. artikuluko 2. atalean xedatutako prozedurarekin bat eginda.
- 4) Behin Pentsio Fondoa desegiten denean, likidazio-aldia hasiko da; eta izendapenean, "likidazioan" hitza gehituko da. Hala, beharrezko eragiketa guztiak Fondoaren Kontrol

Batzordearekin eta Erakunde Kudeatzailearekin batera gauzatuko dira, indarrean dagoen araudiak xedatutakoarekin bat etorrira.

Erakunde Kudeatzaileak, likidazioa gauzatzean, Fondoaren Kontrol Batzordearen agindupean eta haren arauen arabera jardungo du, eta eragiketak bideratzean, Erakunde Kudeatzailearen laguntza jasoko du.

- 5) Behin likidazioa amaitutakoan, aurretik jasotako ataletan araututakoa bete ostean, likidatzaileek, edo hala badagokio, Erakunde Kudeatzaileak iraugitako pentsio-fondoari buruzko idazpenak ezeztatzeke eskatu beharko die Merkataritza Erregistratzaileari eta Pentsio Fondo eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiari.

VI. TITULUA. AZKEN XEDAPENAK

35. ARTIKULUA. JURISDIKZIOA

Bide judizialera joz gero, Plan atxikiaren sustatzaileak, partaideak eta onuradunek, eta baita Fondoaren Erakunde Sustatzaileak, Kudeatzaileak eta Gordailuzainak espresuki bete beharko dute Fondoaren egoitza dagoen tokiko Epaitegi eta Auzitegien eskumeneko jurisdikzioa.

36. ARTIKULUA. HARTUTAKO KONPROMISOAK

Plan bat Fondoan integratzeak inplizituki dakar Kontrol Batzordeak, Sustatzaileak, Partaideak eta Onuradunek honako Funtzionamendu Arau hauek bete behar izatea.